



PRENTSA OHARRA

Basque Audiovisual Cannesko MIPCOM azokan egongo da enpresen eta profesionalen arteko hartu-emanak bultzatzeko helburuarekin

- "Matchmaking" bat antolatu da urriaren 5erako
- MIPCOM era guztietako plataformei zabalduko nazioarteko azoka bat da, eta laugarren aldiz jarraian izango da bertan Basque Audiovisual marka

Basque Audiovisual markaren eginkizun garrantzitsuenetako bat enpresen eta erosle edo laguntzaile potentzialen arteko harremanak bideratzea izango da, urriaren 4tik 8ra Cannesen egingo den MIPCOM azokan. Hori dela-eta, "matchmaking" bat antolatu da urriaren 5erako, asteartea, **Basque Audiovisual** markaren babesean biltzen diren Euskal Herriko 8 enpresen edukiak ezagutarazteko.

Enpresek beren produktuak eskainiko dituzte ekimen honen bitartez, eta elkarlanerako proposamenak edo negozio ideia berriak jaso ahal izango dituzte aldi berean. Honako hauek izango dira euskal ordezkariak: **3Koma**, ('El Calendario del Año', 'El coro de la cárcel', 'You are invited', 'Till wedding tear us apart'); **Baleuko** ('Omega T', amaitu gabe dagoen animaziozko filma); **Expressive** ('Izarren Argia' eta 'Flores silvestres'); **Mediabask** ('Mystical. Eldyins journey' - animaziozko seriea); **Pausoka** ('Every Jack has a Jill' - lehiaketa); **Silverspace** ('Hiroku y los defensores de Gaia', 'Climate change'); **Somuga** ('The Howoldies', 'Gartxot, Itzaltzuko Bardoa'); eta **Sonora** ('The Black Ink'). Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterreko partaide den EiTB Cannesen ere egongo da enpresa horiekin batera.

Aurtengo MIPCOM edizioa urriaren 4tik 8ra egingo da, eta **Basque Audiovisual** laugarren aldiz jarraian egongo da sektorean garrantzitsuenetakoa den azoka honetan. Produktore, erosle, banatzaile eta finantza agente asko hurbiltzen da bertara, eta negozio aukera handiak ematen ditu horrek.

Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreko enpresek urte asko daramatzate munduko jaialdi eta azoka handienetan parte hartzen. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak

ahalegin handiagoa egitea erabaki dute, enpresa kopuru ahalik eta handiena biltzeko **Basque Audiovisual** markaren inguruan, atzerrian oihartzuna duen ekimen jada sendoa, gurean egiten den produktua identifikatzeko balio duena.

Basque Audiovisual marka *Palais des Festivals*-eko 13.05 standean egongo da, eta ikus-entzunezkoen teknologia erabiliko du bere enpresen produktuak erakusteko. Gainera, katalogo komertzial bat ere eskaintzen du Internet bidez (www.basqueaudiovisual.com), tresna eraginkor eta egokia hartu-emanak bideratzeko eta azokak iraun bitartean bezero eta laguntzaileekin hitzorduak egiteko.